



Beasaingo udala

IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOKO BITARTEKOAK HEDATZEKO BEASAINGO UDALA ETA "ZIURTAPEN
ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A." ERAKUNDEEN
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN ARAUEMAILEA





Beasaingo udala

Klausulen aurkibidea.

BILDUTA.....	3
AZALTZEN DUTE.....	3
KLAUSULAK.....	4
LEHENA. XEDEA	4
BIGARRENA. INDARRALDIA.....	4
HIRUGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA	4
LAUGARRENA. ALDEEN BETEBEHARRAK	5
BOSGARRENA. ALDEEN ERANTZUKIZUNA	5
SEIGARRENA. HITZARMENAREN AMAIERA	6
ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA.....	6
ZORTZIGARRENA. ALDAKETA.....	6
BEDERATZIGARRENA. JURISDIKZIOA	6





Beasaingo udala

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 30ean

BILDUTA

Batetik, Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo Alkatea den aldetik

Aurrerantzean, Beasaingo Udala

Bestetik, *Izaskun Urrestarazu Amondarain and., Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A.* ren ordezkaria den aldetik, haren izenean eta ordezkaritzan.

Zuzendariari dagozkion ahalmenak ditu, 2016ko martxoaren 21ean, Alfredo Pérez Ávila Vitoria-Gasteizko notarioaren aurrean emandako ahalorde-idazkiaren indarrez —haren protokoloko 773 zenbakiarekin—, eta behar bezala inskribatuta dago Arabako Merkataritza Erregistroan, 1541 liburukian, 79 folioan, VI-8926 orrian.

Aurrerantzean IZENPE.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri, eta hau

AZALTZEN DUTE

1. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Lege* berriak administrazio elektronikoen ezarpena sakontzen du, gaur egungo gizarteak dituen beharrei erantzun dieten eta herritarrentzat administrazio-prozedurak sinpleagotuko dituzten prozedura arinagoak eta gardenagoak lortzeko. Bitarteko elektronikoen erabilera bermatzeko eta orokortzeko, Administrazioak beharrezko sistemak eta aplikazioak jarri beharko ditu herritarren esku.

Administrazio elektronikoa eusten duten zutabeetako bat da interesdunek prozeduran erabil ditzaketen identifikazio- eta sinadura-sistemak zehaztea. Alderdi horiek lege-testu horren 9. artikulutik 12. artikulura bitartean arautzen dira.

9. artikulua ezartzen du Administrazio Publikoek interesdunen nortasuna egiaztatu behar dutela administrazio-prozeduran, eta, 2. atalean, aintzat hartzen ditu onartzen diren identifikazio elektronikoko sistemak. Aurreikusten du interesdunek aurrez erregistratuta egon beharko dutela erabiltzaile gisa, haien nortasuna bermatzeko moduan.

Bestalde, 10. artikuluan, Administrazio Publikoek onartzen dituzten sinadura-sistemak arautzen dira.

2. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, haien sozietate informatikoen bitartez, eratu zuten IZENPE sozietatea, identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema propio eta komun gisa jarduteko. IZENPEren funtsezko helburua da erakundeen zerbitzuaren esku jartzea herritarrek eta enpresek elkarren artean harremanetan jartzeko eta Administrazioekin harremanetan jartzeko behar dituzten bitartekoak, betiere zerbitzu publikoetara sartu ahal izan daitezen,


3 / 7_V1.1
ALCALDIA



Beasaingo udala

integritatea, konfidentzialtasuna, ez-ukatzea eta benetakotasuna bermatuta. Zerbitzu horiek ezartzean, ezinbestekoa izango da identifikazio elektronikoa.

Arauzko testuinguru horretan, IZENPEk pertsona fisikoen identifikazio eta sinadura elektronikoa ahalbidetzen duten B@k eta B@k Q bitartekoak garatu ditu. Bi sistema horiek honela osatuta daude: erreferentziatzeko zenbaki bat; pasahitz bat; koordinatu-joko bat, B@k Qren kasuan; eta sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gabe bat (B@k) eta kualifikatu bat (B@k Q), IZENPEren biltegi zentralizatu batean jaulkitzen dena.

Hitzarmen horren esparruan, IZENPEk pertsonak identifikatzeko beste faktore seguruago batzuk txertatu nahi ditu, hala nola emailOTP, smsOTP edo faktore biometrikoak —aurpegiko ezaugarriak eta hatz-aztarnak—.

3. *Barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoa eta konfiantzazko zerbitzuak arautzen dituen eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduak ezartzen duenez, konfiantzako zerbitzu baterako ziurtagiri kualifikatu bat egitean, konfiantzako zerbitzuen egileak zuzenean edo hirugarren baten bidez egiaztatuko du ziurtagiri kualifikatua ematen zaion pertsonaren nortasuna —hirugarren horrek erregistro-erakundearen izaera izango du—.*

Testuinguru horretan, Beasaingo Udalak eta IZENPEk pertsona fisikoak elektronikoki identifikatzeko bitartekoak hedatzeko hitzarmen arauemaile hau sinatu nahi dute. Bitarteko horiek datu biometrikoetan oinarrituko dira, eta Beasaingo Udala IZENPEren erregistro-erakundea izango da.

Horretarako, bi aldeek honako hitzarmen hau adostu dute, eta klausula hauen arabera zuzenduko da

KLAUSULAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Beasaingo Udala eta IZENPE erakundeen arteko lankidetzaz-esparrua ezartzea, Beasaingo Udala IZENPEren erregistro-erakunde gisa jardun dezan identifikazio digitaleko bitartekoak egiteko.

BIGARRENA. INDARRALDIA

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, hitzarmena sinatzen denetik hasita.

Indarraldia amaitu aurretik, aldeek edozein unetan, eta aho batez, erabaki dezakete hitzarmena beste lau urte gehigarri luzatzea, edo hitzarmena bertan behera uztea.

HIRUGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

Hitzarmen honek ez du betebeharr ekonomikorik ekarriko aldeetarako.





Beasaingo udala

LAUGARRENA. ALDEEN BETEBEHARRAK

1. Beasaingo Udala erakundearen betebeharrak izango dira, kasuan kasuan ezartzen den irismenarekin:

- Bigarren klausulan aurreikusten diren erregistro-erakundearen zereginak egitea, IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan ezarritakoari jarraituta —deklarazio hori www.izenpe.eus/dpc web-orrian dago eskuragarri—.

Bere jarduna efizientziaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarritzea.

- IZENPEren hornitzaileen segurtasun-politika betetzea, **Error! Referencia de hipervínculo no válida.** —www.izenpe.eus web-gunean dago eskuragarri—.
- Kasuan kasuan eskatzen den dokumentazioa bidaltzea IZENPEri (eskatzaileak sinatutako jaulkitze-eskaera, dokumentazio identifikatzailea).
- Identifikazio digitaleko prozesua sortzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren argibideak ematea IZENPEk ematen dituen identifikazio bitartekoen eskatzaileei.

2. IZENPEren betebeharrak izango dira, kasuan kasuan ezartzen den irismenarekin:

- Beasaingo Udala erakundeari azaltzea nola egin behar dituen erregistro-erakundearen zereginak, eta haren esanetara jartzea sor daitekeen edozein gauzatarako.
Ondorio horietarako, beharrezko prestakuntza eskaintzea nortasun digitalak sortzeaz eta egiaztatzeaz arduratuko diren langileei.
- Beasaingo Udala erakundearen esku jartzea erabiltzaileak erregistratzeko eta identifikatzeko beharrezkoak den softwarea.

BOSGARRENA. ALDEEN ERANTZUKIZUNA

1. Beasaingo Udala erakundearen erantzukizunpean dago:

- IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan zehazten dena betetzea, aplikatzekoa den horretan.
- Zerbitzua egoki egitea, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.
- Hitzarmen honen arabera dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteei erantzutea IZENPEren aurrean.

2. IZENPEren erantzukizunpean dago:

- Hemen zehazten dena zuzen egitea.
- Hitzarmen honen arabera dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteei erantzutea.
- Zehazki, konfiantzako zerbitzuen egile gisa, bere jardueraren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalteei eta galerei erantzutea, baldin eta hitzarmen honek edo ziurtapen eta konfiantzako zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriarekin jarduten badu.





Beasaingo udala

¡Error! Referencia de hipervínculo no válida. —www.izenpe.eus web-gunean dago eskuragarri—.

SEIGARRENA. HITZARMENAREN AMAIERA

Hitzarmen hau amaituko da honako kausa hauetakoren bat gertatzen denean:

- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, hura luzatzea adostu gabe.
- Sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea.

Edonola ere, aldeetako edozeinek betebeharrak betetzen ez dituen aldeari errekerimendua egin diezaioke epe jakin batean bete ditzan bete gabeko betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori alde sinatzaileei jakinarazteaz gain, hitzarmena gauzatzearen jarraipena, zaintza eta kontrola egingo duen mekanismoaren arduradunari ere jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan adierazten den epea amaitu, eta betebeharrak oraindik bete ez badira, errekerimendua zuzendu zuen aldeak alde sinatzaileei jakinaraziko die hori hitzarmena amaitutzat emateko kausa dela, eta amaitutzat joko da hitzarmena. Hitzarmena kausa horren ondorioz amaitzeak, bestalde, eragin diren kalteak ordaintzea ekar dezake, hala aurreikusita bada.

- Indarrean dagoen legerian ezartzen diren gainerako kausak.

Hitzarmena amaitzen bada, edo bertan behera geratzen bada, aldeek bete egin beharko dituzte kontratuaren amaieraren aurretik beste aldearekiko eta hirugarren batzuekiko haien gain hartu dituzten betebeharrak.

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzorde Mistoia eratu ahal izango da hitzarmen hau behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko eta koordinatzeko. Lau kidek osatuko dute batzordea, bi Beasaingo Udala erakundearen ordezkarietan eta beste bi kide IZENPEren ordezkarietan.

Batzordeko presidente postua txandaka beteko dute, 6 hilabeteko aldietan eta IZENPEk hasita.

Bi aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da batzordea eta, gutxienez, hiru hilean behin, lankidetzaren emaitzak eta gorabeherak aztertzeko.

ZORTZIGARRENA. ALDAKETA

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten aldeek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak Hitzarmenari gehituko zaizkio addenda moduan.

BEDERATZIGARRENA. JURISDIKZIOA

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi ebazteko, Vitoria-Gasteizko Auzitegien eta Epaitegien mende jarri beharko da.





Beasaingo udala

Aurrekoarekiko adostasuna adierazteko, hitzarmena sinatu dute bi aldeek.

AITOR ALDASORO ITURBE J.



IZASKUN URRESTARAZU AMONDARAIN and.



Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de
Certificación y Servicios, Izenpe, SA

